

IZENBURUA: Nola garatu komunikaziorako gaitasunak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan?

SARRERA / DESKRIBAPENA.

Europako Unibertsitate Eremuan funtsezko tokia betetzen dute komunikaziorako gaitasunek. Izan ere, titulazio berriak diseinatzeko argitaratu diren Liburu Zurietan jasotako datuen arabera, komunikaziorako gaitasunek 8,2ko garrantzia dute batez beste, graduatuen prestakuntzan. Bestalde, gaitasun hauek ez dute soil-soilik zeharkako jitea. Titulazio gehien kasuan, komunikaziorako gaitasunak mugatzaileak dira ikasketa planetan aurreikusten diren hainbat helburu erdiesteko. Hori dela eta, irakasle asko dira jada, beren irakaskuntza-jardueran komunikaziorako gaitasunak kontuan hartzen hasi direnak.

Alabaina, ez da beti erraza gertatzen ari erabakitzea komunikazioaren zein alderdi landu, nolako trataera eman edota nola ebaluatu. Izan ere, jakintza-arloaren eta titulazioaren arabera ezberdinak izango dira landu beharreko alderdiak eta ezarri beharreko lehentasunak. Gauzak horrela, ikastaro honen bidez hainbat tresna eskaini nahi zaizkie orotariko irakasleei, beren irakaskuntza-programetan komunikaziorako gaitasunei zer toki eman eta nola tratatu erabaki dezaten. Horretarako, mintegi-formatuko lantegi praktikoa bat egingo dugu. Lantegi honetan hiru oinarritzko galderaren inguruan egingo dugu lan: a) zein eginkizunetarako prestatu nahi/behar ditugu ikasleak titulazioan?; b) komunikazioaren zein alderdi landu beharko ditu eginkizun horiek eraginkortasunez bete ahal izateko?; c) nola integratu ahal dira alderdi komunikatiboak ikasgelak jardunean irakasgaiaren martxa desitxuratu gabe?

IKASTAROAREN HELBURUAK:

1. **helburua.** Titulaziorako aurreikusten diren komunikaziorako gaitasunen zerrenda aztertzea, eta bertan jasotzen direnen artean, lehentasunak ezartzea.
2. **helburua.** Emandako hainbat teknika eta jarduera-ereduren artean, lehenetsitako gaitasun horiek lantzeko egokienak hautatzea.
3. **helburua.** Nork bere irakasgaiaren diseinua berraztertu, eta komunikaziorako gaitasunen lanketa bideratzeko aukerak aztertzea eta eztabaidatzea.

METODOLOGIA:

Lantegi formatua erabiliko da ikastaro honetan. Gogoeta-jarduna esperientzia eta egoera praktikoen inguruan arduzko da gehienbat. Arreta berezia jarriko zaie Liburu Zuriek egiten dituzten ekarpenei, eta komunikaziorako gaitasunak lantzeko UPV-EHU eta beste unibertsitate batzuetan abian dauden lan eta proposamenei.

Saioaren hasieran ikastaroaren arduradunak egun horretako helburuak eta prozedurak azalduko ditu laburki. Ondoren, jarduera hainbat proposatuko dizkie parte-hartzaileei oinarritzko hainbat ideia eta kontzeptu lantzeko. Jarraian nork bere irakaskuntza-egitasmoaren gainean egingo du lan, egun horretan aztergai diren kontuak gogoan hartuta. Amaieran, gogoeta eta lanen emaitzak trukatu dira taldean.

Parte-hartzaileek beren irakasgaiaren diseinua jasotzen duen protokoloa ekarri dute ikasgelara. Hartara, nork bere titulazioaren eta irakasgaiaren testuinguruan lekutu ahal izango du mintegian egingo den gogoeta-lana. Horrez gain, bigarren saiorako bakoitzak bere ordenagailu eramangarria (wifi konexiorako den eduroam sarea konfiguratuta) ekartzea komeni da, baliabide informatiboak erabiliko dira eta.

GAI ZERRENDA.

1. Zein eginkizun komunikatibotarako prestatu behar/nahi ditugu ikasleak?
2. Zein dira ohiko irakasgaien testuinguruan komunikaziorako gaitasunak lantzeko erabili ahal diren teknikak eta baliabideak?
3. Zer alderdi hartu behar ditugu kontuan ikasleen jarduna gidatzeko eta ebaluatzeko? Zer tresna erabili ahal ditugu horretarako?

EBALUAZIOA / AKREDITAZIOA

Egunero fitxa egituratu bat osatu beharko dute parte-hartzaileek, egindako gogoeten ondorio praktikoak jasota.

DATUAK

Iraupena (ordu kopuru): 9 ordu

Datak: Irailaren 8,9 eta 10

GOMENDIOAK:

Gomendatzen dizuegu, bigarren saiotik aurrera, ordenagailu pertsonala ekar dezazuela, sareko baliabideekin lan egingo dugu eta. Ordenagailuak wifi konexiorako den eduroam sarea konfiguratuta izan behar du; bestela CIDIRi aldez aurretik eskatu behar diozue aipatutako konfigurazioa.